

# B

BARREN

TOKIKOM



# Eskubaloitari agur

Unai Arrieta

ESKERTZA

## LOLITA MONDRAGON SANCHEZ




*Zauden lekuan zaudela, egin irri;  
irabaziko dugu!*

*Maite zaitugu.*

2014ko maiatzaren 17an hil zen.

Etxekoak



## LOLITA MONDRAGON SANCHEZ



2014ko maiatzaren 17an hil zen.

*“Askatasunak batuko gaitu egunsentian”*

Arnaldo Askatu plataforma



ESKERTZA

## JOSE LUIS REZOLA GARMENDIA



2013ko maiatzaren 11n hil zen, 66 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen du haren oroimenez  
I.urteurreneko mezara agertu izana.



I. URTEURRENA

## SOLEDAD IÑIGUEZ AGUIRRE



*Bizi zinela maite izan zintugunok  
ez zaitugu sekula ahaztuko.*

Etxekoak

2013ko maiatzaren 23an hil zen. I.urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 24an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.





Ainhoa Lendinez

Urduri nago, Iñi! 48 ordu eskas, egun handirako. Mundu osoko mendizaleak Euskal Herriari begira izango dira asteburuan. Munduko mendi-lasterketa onena, non eta Euskal Herriaren bihotzean, 1.400 biztanleko herrixka batean. “Zegama... Zegama da”, esan zuen katalanak; eta ez alferrik. Urte luzez ikusle izan ostean, beste aldean egoteko zortea daukat aurten. Korrikalariei begira, oihu eta negar egin izan dut urtero, oilo-ipurdia jartzeraino. Gai izango ote naiz, ni neu ere norbait horrela gozarazteko? Bi hilabete pasatxo daramatzaguz etxean Aizkorri inguruko puntu horiekin ametsetan. Zegama inguruan izango dira gurasoak. Arbelar eta Andraitzen, Nere. Osaba-izebak Urbian, eta beti bezala, Joseba denean: irteeran nahiz helmugan; ordekan eta maldetan.



Iñigo Lariz

Igande goizean Zegamako plazan izango gara, okerrik ezean. Bederatziak jozteko minutu batzuk falta direnean dortsala kamisetan daukagunok irteerako marra atzean bilduko gara artaldea izango bagina bezala. Vangelisek konposaturiko *Con-quest of paradise* abestia bozgorailuetatik irten eta gure belarrietara iristean barrua uzkartuko zaigu eta bihotz taupadak bizkortuko zaizkigu musikaren erritmoak lagunduta. Gorputz osoko giharrak tinko izango ditugu eta tentsioa nabarituko zaigu aurpegian eta elizako kanpai hostekin batera paradisuaren bila abiatuko gara denok Aizkorri mendizerrarentz.



**“Milagarrenez joango gara igandean Aizkorriara. Oraingoan, ezberdina izango da, ordea”**

Aste honetako euriek lokatzetan utziko zituzten Otzaurte eta Sancti Spiritu. Irristakor egongo dira Aitxuri eta Arbelarreko haitzak. Amak ez dit uzten “beldur” hitza erabiltzen, baina nola erantzungo dit hauspoak Aratz, Aizkorri eta Andraitzeko maldetan? Nola zangoek, Oltzeko borda inguruetan? Etxeko lanak erdizka egin ditudan sentzazioa daukat, baina buru-bihotzek baietz esaten didate! Milagarrenez joango gara igandean Aizkorriara. Oraingoan, ezberdina izango da, ordea. Nik ere sentitu nahi dut Aizkorri, mila ikurrinaren artean. Igandean, 9:00etan, Zegamako plazan ikusiko dugu elkar, ezta?

**“Oilo-ipurdia jartzen zait igande goizean biziko duguna pentsatze hutsarekin”**

Hitz hauek idaztean irteeran izan naizen hiru aldietan nabaritu dudana zurrara ber-bera nabaritu dut. Oilo-ipurdia jartzen zait igande goizean biziko duguna pentsatze hutsarekin. Eta bai, nik ere negar egin dut. Negar egin nuen bukatzea lortu nuen lehen aldian eta negar egin nuen iaz, beroak jota, amaitzerik izan ez nuelako. Irteeran egongo garen guztiok helburu ezberdin bat izango dugu, bakoitzak berea, baina denok berbera aldi berean; Zegama-Aizkorri lasterketaz gozatzea. Irabaztea ez delako helmugara lehena iristea. Irabaztea nork bere burua garaitzea delako, nork bere mugak eta beldurrak garaitzea. Hori lortuta, aurtentzen pozarren egingo dut negar berriz ere.



## FOTODEPILAZIOA

- Ezpain eta kokotsa..... 25 € / saioko
- Besapeak..... 29 € / saioko
- Izterondoak..... 29 € / saioko
- Izterondo oso iletsuak ..... 29 € / saioko
- Izterondorako depilazio brasildarra ..... 49 € / saioko
- Hanka osoa..... 99 € / saioko
- ★ Torax-a,sabela eta besapeak ..... 99 € / saloko
- ★ Bizkarra, sorbalda eta besapeak ..... 99 € / saloko

★ Gizonezkoentzako, fotodepilazioan lehen saiorako eskaintza

✦ Torax-a,abela eta besapeak

✦ Bizkarra, sorbalda eta besapeak

49€

**Santa Ana, 18 - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 741 864**

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Amedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:



## Laguntzaileak:



elgoibar  
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Eskerrik asko

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuet 1974an jaiotako enantzikizunaren parte hartu zenuenoi. Oso egun ona pasatu genuen.

Eta batez ere antolatzaileei eskertu nahi diet: Ana Isabel Marin, Ana Mari Gutierrez eta Ines Ramirez. Primeran pasatu genuen zeuen lanari esker.

S.C. ©

### Zorionak eta eskerrik asko

Gurasoek eta jokalariek eskerrak eman nahi dizkiegu CD Elgoibarko Kadete A taldeko entrenatzaileei. Andoni Duarte eta Ion Gabilondo txalotu nahi ditugu, denboraldi bikaina egin dutelako. Zorionak, eta eskerrik asko egin duzuen lan guztiagatik.

Guraso eta jokariak ©

### Gure esku dago

Gure Esku Dago ekimenaren barruan, eta herri baten erabakitzeko eskubidearen alde, dagoeneko jende pila batek hartu du konpromisoa ekainaren 8an Euskal Herriaren zati bat zeharkatuko duen 123 kilometrotako giza-kate erraldoian parte hartzeko.

Gure eskualdeari Bergara inguruko hiru kilometro egokitu zaizkio, giza-katearen 31, 32 eta 33. kilometroak. 31. kilometroa eibartarrek beteko dute osorik, 32. kilometroa soraluzetar eta elgoibartarrek eta 33. kilometroa debartarrek, mendarotarrek eta mutrikuarrek.

Gure eskualdean, hara hemen, gaurko egunez, nola dagoen metro salmentaren kontua:

31. kilometroa: Eibarren 840 metro salduta.

32. kilometroa: Soraluzen 263 eta Elgoibarren 446; guztira: 709 metro salduta.

33. kilometroa: Mendaron 201, Deban 286 eta Mutrikun 252; guztira 739 metro salduta.

Beraz, Aupa Elgoibar, fenomeno doa kontua!

Eta batez ere eskerrik asko eta zorionak dagoeneko metroak erosi dituzten elgoibartar guztiak!

Eta erosteko falta direnek jakin ostiral arratsaldetan Kalegoen Plazan jartzen dugula salmenta mahaia eta bestela asteleheneretan Kultur Etxeko Sotoan egoten garena arratsal-

deko 19:00etatik aurrera. Gainera, Maiatzaren 31n goizean Kalegoen Plazan goiz osoko egitaraua antolatu dugu, eta han ere erosi ahalko dituzue metro zein kamisetak.

**Elgoibarko Gure Esku Dago taldea ©**

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

## Erretratu zaharra



1969

Aste honetako erretratu zaharra Marisa Andonegik bidali du BARRENERA. Bere aita Nikaxik 1969an ateratako argazkia da. Koadri-lan bidaiak eta irteerak egiteko ohitura zuten, eta erretratu hau bidaia horietako batean ateratakoa da. Senar-emazteak joaten ziren, baina erretratuan emakumeak soilik ageri dira. Gogora ditzagun zeintzuk diren:

**Ezkerretik eskumara:** Bittori Agirregomezkorta (†), Tomasa San Martin, M<sup>a</sup> Luisa Milikua (†), Pauli Astigarraga, Benita Osoro (†), Maritxu Osoro (†) eta Juani San Martin (†).

**elgoibar ikastola**

**Konfiantzan IKASTOLA**

HH 0-1 ean  
irailean eta urrian hasteko  
matrikula zabalik  
maiatzaren 19tik 30era

Ordutegi zabala: 7:30 - 19:30  
Jai-zubietan eta oporretan irekita

# Elgoibar eta Ermua lotuko dituen bidegorria eskatzeko sinadura bilketa hasi du Debabarreneko Esperientzia Eskolak

50 urtez gorako ikasle talde baten ekimena izan da, eta hogeit hamar bat talderen babesak lortu dute

**E**lgoibar eta Maltzaga arteko bidegorria Ermuraino luzatzea eskatu du Debabarreneko Esperientzia Eskolak, eta izaera askotariko bailarako hogeit hamar talderen babesak lortu ostean, ekimenaren aldeko sinadura bilketa hasi du. Elgoibar, Eibar eta Ermua bidegorri batekin lotzeko arrazoi ugari daudela jaso dute eskaera orrian.

Debabarreneko Esperientzia Eskola elkartruckerako gunea da, eta gizartean era positiboan eragiteko heziketa moduluak eskaintzen ditu. Berez, ikasteko eta gizartean aktiboki parte hartzeko ilusioz dauden 50 urtez gorako lagunei zuzendutako eskola da. Eskolak antolatu eta jasotzeaz gain, proiektuak ere lantzen dituzte Esperientzia Eskolan, eta hamargarren promozioan parte hartzen diharduten lagunak dira Elgoibar eta Er-

mua bidegorri batekin lotzeko eskaera lantzen ari direnak.

Sinistuta daude Elgoibar eta Ermua arteko bidegorriak onura eta abantaila asko ekarriko dituela. "Bata bestearengandik kilometro oso gutxitara dauden herriak dira Elgoibar, Eibar eta Ermua. Beraz, batetik bestera oinez edo bizikletaz mugitzeko distantziak aproposak dira ia edonorentzat", jaso dute.

Horrez gain, nabarmendu dute proiektuak herritar askori eraginko liokela eta hortaz onurak biztanleen zati handi batek nabituko lituzkeela. "Hiru herrietan bizi diren 55.000 lagun inguruk aterako liokete probetxua bidegorriari, lanera joateko batzuek, aisialdirako besteek, eta erosketak egitera ondoko herrira joateko beste zenbaitek, errotutako ohitura baita hiru herrietan". Era berean,

bidegorriak ume, gazte zein nagusiek bizi-modu osasuntsuagoa egiteko aukerak zabaltzen dituela uste dute.

## Babes zabala

Eskolan landutako proiektua gizarteratu dute, eta dagoeneko hogeit hamar talderen babesak jaso dute, gehienak Eibarkoak: Armeria Eskola, Aspace, Eibar Rugby Taldea, Eibarko Klub Ziklista, Sostoa abesbatza, Ikasten erakundea, Biztu, Eibarko jubilatuen eta pentsiodunen Koordinadora, Aldatze Ikastetxea, Eta Kitto euskara elkarte, Pagatxa Elkarte, Altxoa Elkarte, Eskozia La Brava, Kezka Dantza Taldea, Debabarreneko Adinekoen Kontseilua, SD Eibar, Nagusilan eta Eibarko Merkatarien Elkarte.

## Ane Beitia izango da EAJren hautagaia alkatetzarako



Ane Beitia izango da EAJren alkatetzarako hautagaia 2015eko maiatzean egingo diren Udal Hauteskuendetarako. Aho batez aukeratu du EAJren Uri Buru Batzarrak Beitia. Medikuntzako ikasketak osatu zituen Beitiak, eta gaur egun prebentzio eta ergonomia teknikari lanetan dihardu Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailean. 2010. urtetik zinegotzia da Elgoibarko Udalean, eta legegaldi honetan Euskara eta Barne sailletako arduraduna da. Ezkondua dago, eta hiru seme-alaben ama da. Elgoibarko alkate izandako Lucio Beitiaren alaba da Ane. 1983tik 87ra bitartean izan zen Elgoibarko alkate Lucio.

## Ibilgailu elektrikoek ezer ez dakitenak behar ditu Udalak

Ibilgailu elektrikoek inguruko ezagutzarik ez duten elgoibartarren laguntza eskatu du Udalak. EMUGik eskaintzen duen zerbitzuaren antzekorik sekula probatu ez duten herritarrei inkesta bat betetzea eskatu die Udalak. Informazioa jaso nahi du, ibilgailu hauen erabilera sustatzeko estrategiak zehazteko eta zerbitzua bera hobetzeko. Smartchem proiektuaren baitako ekimena da hau. Proiektu horretan Europako lau hiri edo eskualde elkartu dira: Elgoibar eta Donostia Gipuzkoatik,artzelona, Newcastle eta Reggio Emilia. Informazio gehiagorako eta inkesta betetzeko: [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org).



## Ekitaldia **Zereginen Ikasketarako Gelak**



Zereginen Ikasketarako Gelak (ZIG) egitasmoan diharduten 16 eta 21 urte bitarteko Debabarrenako eta Debagoienako 40 bat ikasle batu ziren eguaztenean Elgoibarren. Debagoienean lau ZIG gela daude: Arrasaten bi, eta Oñatin eta Bergaran bana. Debabarrenean bakarria dago, Elgoibarko BHI Institutuan, hain justu ere. Elgoibarko zig ikasleak Eibar, Elgoibar, Mutriku, Mendaro eta Zumaiakoak dira. Hezkuntza premia bereziak dituzten gaztetxoei helduak direnean autonomo izan daitezten estrategiak ematea da ZIG gelen helburua.

Aureskua dantzatu zieten Kalegoen plazan, eta handik udaletxeko pleno aretora igo ziren, Alfredo Etxeberria alkatearekin. Bertso bat elkarrekin abestu ostean, irakasleek prestatutako ginkana batean parte hartu zuten ikasleek eta eguerdi partean mokadutxoia egin zuten gaztetxean.

## Irudia **Pilarreko aparkalekua, zabalik**



Bukatu dira luzamenduak, eta zabaldu dute Pilarreko aparkalekua, iragarritakoa baino ia hiru hilabete beranduago. Aparkalekua bera ere uste baino txikiagoa izango da, edo behintzat esana zutena baino auto gutxiago sartuko dira. Elgoibarko Udalak bere garaian esan zuen 51 autorentzako lekua izango zela, eraikina eraitsi zutenean bistaratu ziren traba arkitektoniko batzuek ez zutelako gehiagorako lekurik lagatzen, baina orain, 35 auto baino ez direla sartuko zehaztu dute. Horietako 29 orube hutsean sartuko dira, eta gainerakoak sarrerako aldapan. Aldaparen alde bakar batean bakarrik aparkatu ahal izango dira autoak, eta aparkaleku horiek ez dira marraz txuriz bananduta egongo. Pilarren aparkeza doakoa izango da, eta ez da denbora mugarik egongo aparkatzeko.



## **Txipdun edukiontziak jarriko dituzte Elgoibarren hondakin organikoentzat**

Materia organikoa sailkatzeko txipa duen edukiontzi marroiak jarriko ditu Debabarreneko mankomunitateak Elgoibarko kaleetan, maiatzaren 29tik ekainaren 2ra bitartean. Edukiontzi berriek egungo edukiontzi giltzadunak ordezkaturiko dituzte. Agintarien esanetan, txipari esker parte-hartzaileen datuak erregistratu eta materia organikoaren gaikako bilketan "benetan" parte hartzen duten herritarrak zein diren jakin ahal izango dute, besteak beste. Era berean, poltsa biodegradagarriak bantatzeko lau poltsa-makina jarriko dituzte. Momentuz bakarria dago jarrita, Santa Ana kalean, eta ekainaren 4a baino lehen egongo da erabiltzeko moduan. Toletxegaingo igogailuaren ondoan eta anbulatorio ondoko igogailuaren ondoan jarriko dituzte beste bi poltsa-makina, eta aurrerago beste bat, "seguruenez Urazandin". Debabarreneko mankomunitateak telefono bidezko arretazerbizua (900 103 226) jarri du abian txipa duten edukiontzi berriei buruzko zalantzak argitzeko.

## **Zabaldu dute Inersoko oporraldirako izena emateko epea**

Elgoibarko Udaleko Ongizarte Sailak jakinarazi du zabaldu dutela adinekoentzat Inersoko oporren programarako izena emateko epea. Interesatuek ekainaren 5a arteko epea dute eskaera orriak aurkezteko. Eskaera orriak udaletxean, Ongizate Sailean, edo Jubilatuen Egoitzan eskuratu daitezke.

## BATUKADA ERRITMORA

Batukada taldea sortu berri dute Mendaron. Ostiraletan elkartzen dira entseguetarako Gaztetxean, eta guztira, 22 lagun dira taldean. Gehiago dira, baina, egon nahiko luketenak eta leku faltagatik itxarote-zerrendan gelditu direnak. Ekainaren 20ra arte iraungo du ikastaroak, eta ondo bidean, ekaineko azkeneko astean edo uztaila hasieran kalera irtengo dira, Jorge Ortega maisuarekin ikasitakoa erakustera.

Ainara Argoitia

Batukada taldekoak, Gaztetxe atarian.



Sanba doinuek hartu dute Garagartza. Ostirala da, iluntzea, eta batukada taldekoak entseguan ari dira Gaztetxean. Bigarren entsegu eguna dute gaur, eta dotore ari dira, nor berera, baina elkar hartuta denak. Leire Alberdi Mendaron batukada taldea sortu izanaren ardura-duna ere han da, Jorge Ortega irakaslea ematen ari zaien azalpenei aidi. Sare sozialen bidez eta Whatsapp zerbitzuaren bidez egin zuen Alberdik batukada taldea sortzeko deialdia, eta “ustekabean” taldea sortzeko baino jende gehiago batu zaio. “Zorritxarrez kanpoan laga behar izan dugu jendea. 22 gara taldean, eta itxarote-zerrenda eta guzti dago”, azaldu du. Pozik, “oso pozik”, dago izan duen erantzunarekin. Duela bi urte batukada feminista batean jardun zuen Leire Alberdik Eibarren, eta horrenbeste gustatu zitzaion, Mendaron ere taldetxoa sortzeko erronka jarri ziola bere buruari. Pentsatu eta egin. “Burugogorra naiz”, dio. Hasieran, musika munduan zebilen jendearekin jarri zen harremanetan “burutazio hura” babestuko ote luketen jakiteko, eta haiei gustatu zitzaieela ikusita, ez zuen zalan-tzarik egin. “Banekien halako proiektu bat Elgoibarren edo herri handiago batean sortzea errazagoa izango litzatekeela, baina Mendaron sortu nahi nuen taldea, eta garbi neukan taldeak irekia izan behar zuela; musikaren bueltan ez dabil-tzanak ere nahi nituen taldean”. Bistan da lortu duela. Adin eta jite askotako lagunak batu ditu, musika mundukoak eta sekula musika instrumentu bat esku artean hartu gabeak. Ondo pasatzeko gogoak batzen ditu guztiak. 22 gizon-emakume dira, bi ez beste guztiak mendarorarrak.

Batukada taldearekin herriko koadrilen arteko harremanak sendotzeko aukera ikusten du Alberdik, eta bide batez, Mendaroko kultur eskaintza handitu eta herritarren parte-hartzea sutatzekoa ere bai. “Mendaron, 30-60 urte bitartekoentzako ez dago aukera handirik, eta aisialdirako beste ekintza bat izan daiteke hau. Nere buruan batukada taldea sortzea dago, baina ikusiko dugu jendea prest dagoen edo zer. Momentuz, gozatzen ari gara, eta horixe da hemen gure lehenengo helburua”, zehaztu du. Taldea osatzeko hamabost bat lagun prest egotea nahikoa luke, eta ikusita ikastarorako zenbat jendek eman duen izena, zaila ere ez du ematen.





Orain daudenek emanaldi bat gutxienez emango dute ekaina edo uztaila aldera, ikastaroa bukatu ostean [ekainaren 20an bukatuko dituzte eskolak]. “Santanak aurretik, seguru”, gehitu du Alberdik.

Bide onetik doazela dio irakasleak. “Taldea oso polita osatu dute, eta martxa polita hartu dugu. Batzuei gehiago kostatzen zaie beste batzuei baino, baina hori talde guztietako kontua da”, esan du Jorge Ortega. Madrildarra da sortzez Jorge, eta Brasilen egin zuen egonaldi batean gerturatu zen bera batukada mundura. Gero, Madrilan, No Estres taldean jardun zuen musika sortzen, harik eta duela hamar bat urte Euskal Herrira etorri zen arte. Azkoitira iritsi zen, eta sei urte egin zituen han Botapa batukada taldean. “Sekulako taldea osatu genuen”, dio euskara garbian –euskaraz da ikastaroa ere–. Orain, Urrestillan bizi da, sexologoa da ogibidez, eta hainbat batukada ikastaro eman ditu han eta hemen. Mendarora ostiralero etorriko da ekainaren 20a bitartean. “Zuzendari lanak egiten ditut orain, baina idealena litzateke nik egiten dudana hau ere taldeko norbaiti irakastea, gaur duten menpekotasun hau eteko”, esan du Jorgek.

## Ikasleak, gustura

Aitzol Urain, Eukene Gurrutxaga, Enekoitz Zubiaurre eta Ainhoa Urbieta dira batukada talderako izena eman dutenetako lau. Surdoak jotzen harrapatu dugu Urain entseguan. Tamaina handiko danbor zilindrikoa da surdoak, batukada taldeetako instrumentu deigarrienetakoa beharbada. Aitzolek garbi dauka zerk eraman zuen ikastarorako izena ematera: “Mendaron ez dago taldekako mugimendu handirik eta poza hartu nuen herrian halako mugimendu bat sortu nahian ari



zirela jakin nuenean. Herria bizirik mantendu nahi badugu, halakoak ezinbestekoak dira”, esan du. Musikarekin harremanik izan du aurrez Urainek –alboka jotzen du–, eta ilusioz nabari zaio surdoak hanka artean hartuta. “Ea taldea sortzen dugun”, bota du. Aurrera egiteko gogoz da Enekoitz Zubiaurre ere. Badu eskarmentua musika munduan, bereziki perkusio jole moduan. Bizi Poza txaranga jotzen du, Motxaila Band-ekin ere bai, eta erromerietan ere ibili izan da, bateria hartuta. Hau, baina, berezia dela dio. Aitzolen antzera, surdoak aukeratu zuen berak ere lehenengo entsegu egunean, eta gustura hari da instrumentu horrekin. Batukada taldea sortu asmotan zirela jakin zuenean, ez zuen zalantzarik egin. “Beti gustatu izan zait halako talde batean sartzea eta oso gustura nago sortu dugun taldearekin. Denetarik dago taldean, baina fin ari gara; itxura ona du honek”, bota du.

Jorge Ortega irakaslea ezkerrean, eta eskuinean, Leire Alberdi batukada ikastaroa sortzearen arduraduna.

Izena ematen azkena izan zen Eukene Gurrutxaga. Zortekoa ere bada beraz, kanpoan gelditu direnak ere badirelako. Tanborina jotzen du berak, makila batekin astintzen den pandero itxurako instrumentua. Oso gustura ari dela dio. Musika “izugarri” gustatzen zaiolako eman zuen izena, eta ez da damu. Nabari da bere berbetan, bai: “Gustuko dut musika eta batukada erritmoa, eta perkusiozko instrumentuek ateratzen duten doinu hori oso erakargarria zait. Taldea ere oso *bariopintoa* da, eta gustatzen zait. Sekulako giroa daukagu eta eskolak bi ordukoak badi-ra ere, denbora oso azkar pasatzen da. Lotsak alde batera lagata ari gara, eta oso ondo ari gara elkar hartzen, musikaren bidez. Irakaslea berea ere oso jatorra da. Egia esan, ez nuen uste hain azkar lortuko genuenik erritmoak bateratzea”.

Eukene bezala, Ainhoari ere erakargarri zaizkio perkusio-doinuak. “Sekulako martxa jartzen du perkusioak, eta entzuten dudana bakoitzean halako geldi egon ezin bat sartzen zait gorputzean”, dio. Aurten, inauterietan, batukada jotzen dutenez mozturatu ziren koadrilan, eta beraz, aukera hau ikusi zuenean Ainhoak ez zuen birritan pentsatu. Esperientzia hau “oso aberasgarria” izaten ari zaiola aitortu du. “Oso giro ona daukagu taldean eta mundial pasatzen dugu ostiral arratsaldetako entseguetan”, gehitu du.

Entzundakoak entzunda, beraz, zaila ematen du Mendaron epe motzean batukada talderik sortuko ez dela pentsatzeak. “Ilusio handia daukagu, eta ilusioak egiten du hemen dena”, dio Alberdik.

Jorge Ortega irakaslea erdian, azalpenak ematen.



## Mendaroko familien erdiek eman dute izena hondakin organikoentzako bosgarren edukiontzia jasotzeko

**M**endarora ere zabaldu dute hondakin organikoak biltzeko sistema. Hala egitea adostu dute Mendaroko Udalak eta Debabarrenako mankomunitateak. Ermuan, Eibarren, Sorluzen eta Elgoibarren martxan dago dagoeneko sistema hori, eta Mankomunitatetik jakinarazi dute-nez herritarren parte-hartzea handia izaten ari da inguruko herri guztietan. Mendaron ere 400 familiak eman dute izena dagoeneko, familien erdiek, Mendaroko Udaletik zehaztu dutenez —udal erroldaren arabera, 875 etxe daude Mendaron—. “Kolperik handiena kanpaina hasi eta lehenengo egunetan izan genuen. Orain hasi da apur bat jaisten, baina hala ere, oraindik ari zaizkigu eskaerak iristen”, adierazi du Sonia Garcia alkateak. Martitzenean hasi ziren edukiontzi marroiak jartzten, eta ondo bidean, astelehenerako erabiltzeko moduan izango dira.

Maiatzaren 6an hasi zuen kanpaina Mendaroko Udalak eta maiatzaren 11a bitartean 350 etxek eman zuten izena. Horiek eta gerora izena eman duten guztiek doako kit bat jaso dute udaletxean: hamar litroko edukierako kuboia, poltsa biodegradagarriak, informazio-liburuxka bat eta kaleko edukiontzi



marroia zabaltzeko giltza bat —kaleko edukiontziak itxita egon behar du beti nahitaez—. Nolanahi ere, oraindik badago izena emateko aukera. Interesatuak udaletxera bertara jo dezakete informazio eske edo eta honako telefono zenbakira deitu: 943 033 282.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak jakinarazitako datuen arabera, etxe partikular bakoitzean sortzen diren hondakin % 43 organikoak eta biodegradagarriak dira. Horiek behar bezala banatzen badira, poltsa biodegradagarrietan sartzen badira

eta edukiontzi marroietan lagatzen badira, konpost (ongarri) bihurtuko dira gero.

Gaika bildu behar dira kozinatutako eta kozinatu gabeko gainerako landare-hondakinak (frutak, barazkiak, lekak, ortuariak, pastak, loreak eta abar) eta abere-hondakinak (haragia, arrautzak, arraina, itsaskiak eta horien oskolak edo hezurrak), sukaldeko papera, ezpainzapiak, paperezko mukizapiak, kartoizko arrautza-ontziak, kafe-iragazkiak, ogi- eta opil-hondarrak, baita kortxo naturalzko tapoiak eta txotxak ere.

## Mendaroko Ameikutz abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur, Markinako Emeki abesbatzakoekin batera

Markinako Emeki eta Mendaroko Ameikutz abesbatzek kontzertua eskainiko dute gaur Mendaroko San Agustin kulturgunean (20:00). Ameikutz abesbatza 2007-2008 ikasturtean sortu zuten musika eskolako arduradunek, musika eskolan koru-eskolak hartzen diharduten gaztetxoek kantuan segitzeko aukera izan zezaten. Gaur egun, adin ezberdineko hamasei lagunek osatzen dute abesbatza.

Bestalde, Ondarroa, Bermeo eta Mendaroko musika eskolako ikasleek rock kontzertua eskainiko dute hilaren 25ean, San Agustin aretoan. 18:30ean hasiko da, eta sarrerak han bertan eskuratu ahal izango dira.



# Frontoia berritzeko lanak hasi dituzte eta hiru bat astean amaitzea espero du Mendaroko Udalak

Obra honek 48.600 euro inguruko aurrekontua du

**F**rontoia berritzeko obrak hasi zituzten martitzenean. Bost dira nagusiki egin nahi dituzten lanak: teilatuko erretena konpondu, jatorrizko frontiseko harria bistaratu, ezker horma kolore ilunez margotu, atzeko aldea kristal itxurako material gardenez estali eta harmailen goiko aldean leku bat egokitu ezinduentzako [hiru-lau leku izango dira]. Obra horiek 48.600 aurrekontua dute, eta Mendaroko Asketa Erreformak enpresak dihardu lanean.

Sonia Garcia alkateak esan du aspalditik zerabiltela buruan frontoian obrak egiteko asmoa. Itokin arazoak handitzen ari zirela arrazoitu du Garciak, eta herritar asko kexatu izan zaizkiela frontoian atzeko hormatik sartzen zen haize-lasterragatik. Era berean, ezker paretaren koloreak pilota ikustea bera ere zailtzen zuen frontoiaren ohiko erabiltzaileen arabera, eta hiru arrazoi horiek izan dira nagusiki lanean hasteko arrazoiak. Asketa enpresakoak lanean ari dira, eta ondo bidean, hiru bat astean obrak amaituta egongo direla jakinarazi du Udalak.



## Pintxo lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin zuten astelehenean, udaletxean



Astelehenean banatu zituzten Mendaroko pintxo lehiaketako sariak udaletxean egin zuten ekitaldi xume batean. Hantxe zeuden saritu guztiak, tabernariak eta baita lehiaketan botoa emateagatik saritu duten bi herritarretako bat ere: Javier Garate. Uztargi, Txirristaka eta Arrats tabernetako pintxoak izan ziren hurrenez hurren, epaimahaiak aukeraturako hiru pintxo onenak, eta Menditxokoa izan zen herritarren pintxo gustukoena. Lehiaketan botoa emanez parte hartzeagatik Javier Garate eta Alberto Eizagirre herritarrek ere saritu zituen Udalak, zozketa bidez. Uztargin kontsumitzeko 50 euroko bonua eskuratu zuen Garatek, eta Menditxon kontsumitzeko beste 50 euroko bonu bat Eizagirrek.

### 'Ikastetxeak bertsotan' jaialdia izango da Mendaron astelehenean

Ahokotasuna eta bertsolaritza proiektuaren barruan, ikastetxeak bertsotan jaialdia eskainiko dute Mendaro Ikastolako ikasleek astelehenean. San Agustin kulturgunean izango da saioa, 17:30etik aurrera, eta Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailako ikasleek parte hartuko dute. Ahokotasuna eta bertsolaritza proiektua orain urte batzuk jarri zuten martxan, bertsolaritzak eskaintzen dituen bitartekoak baliatuta, irudimena, diskurtsoak garatzeko gaitasuna, hizkuntzarekiko harreman ludikoa, elkarrizketarako baliabideak, eta arrazoiketa kritikoa lantzeko, besteak beste. Horretarako Gipuzkoako Bertsozale Elkartetik irakasle bat etortzen da astero Mendarra. Gipuzkoa osoan 8.000 ikaslek parte hartzen dute proiektu honetan.

### Arnorri buruzko ikuskizuna ikusteko beste aukera bat izango da

Izan zuen arrakasta ikusita, Arnorri buruzko ikuskizunaren beste saio bat eskainiko dute Mendaroko haur eta gazteek maiatzaren 30ean. Aurreko bi saioak bezala, hau ere San Agustin kulturgunean izango da, 19:00etatik aurrera, eta sarrerak salgai jarriko dituzte, helduentzakoak 3 euroan eta umeentzakoak erdi prezioan.

# UNAI ARRIETA

ESKUBALOI JOKALARIA

**“Krisiaren eraginez, jokalari gazte talentudun asko ikusi ditugu, bestela ikusiko ez genituenak”**

Eskubaloia lagatzea erabaki du Unai Arrietak (Elgoibar, 1981). Gazte, oso gazte, hasi zen eskubaloian jokatzen, eta hamabost urte egin ditu Asobal Ligan, gorengo mailan. Sanlon hasi eta Naturhouse La Rioja taldean amaitu du bere kirol ibilbidea, eta bizitza proiektu berri bati ekin dio orain, osasuna eta kirola uztartuko dituen proiektu bati.



33 urterekin erabaki duzu eskubaloia lagatzea. Txapelketak irabazten dituzten talde gehienetan jokalarik beteranoak dira taldearen pisua daramatenak. 17 urteren ostean esperientzien zakua betea izango duzu, baina hala eta guztiz erretiroa hartzea erabaki duzu. Noiz hartu zenuen azken erabakia? Zerk izan du pisu handiena erabaki horretan?

Aurtengo denboraldia hasi nuenerako erabakita neukan nire azken denboraldia izango zela. Hala ere, erabakia ingurukoei modu esplizitu batean adieraztea pixkat gehiago kostatu zait. Erabakia hartzeko orduan balorazio orokor bat egiten duzu, baina nagusia zera da: pentsatzen dut eskubaloian nire onena eman dudala. Etorkizuneko bizibidean pentsatzen ere badaramazkit urte batzuk eta hori garbi izateak ere asko laguntzen du pauso hori emateko.

**Entrenatzaile titulua ere badaukazu. Ikusten duzu zure burua entrenatzaile modura?**

Bai, entrenatzaile titulua ere badaukat eta azken urte hauetan aritu naiz Logroñon gaztetxoak entrenatzen. Ez da momentu honetan nire helburua, ez behintzat gure mailako talderen bat entrenatzea. Gaztetxoak entrenatzen jarraitzea ez dut bazterten, zaletasun moduan.

**Elgoibarren hasi zinen eskubaloian jokatzeko. Gero Arratera jo zenuen 1997an. Nola gogoratzen duzu sasoi hura? Uste zenuen eskubaloi jokalarik profesional izatera iritsiko zirela eta horrenbeste urte egingo zenituela Asobal Ligan?**

Oroitzapen ederrak ditut. Eskubaloiak garai hartan ilusio handia piztu zidan. Ez nuen pentsatzen goi mailara iritsiko nintzenik eta ezta gutxiago ere, baina gogor entrenatu nahi nuen eta jokoa hobetu. Hortik etorri zen Elgoibartik Arrate taldera joateko erabakia. Eta denborarekin konturatu naiz urrats hori eman izana erabakigarria izan dela nire kirol bizitzan.

**1999an Eibartik Irunera joan zinen: Arratetik Bidasoara, eskubaloiko talde historiko batekin bestera. Bi klubek gainbehera sumatzen hasia al zegoen ordurako? Zerekin topo egin zenuen Bidasoan?**

Arratetik Bidasoarako saltoa handia izan zen. Eskubaloi profesionalera egin nuen jauzi, eta ni oraindik gaztetxoa nintzen. Hasierako urte haiek gogorak izan ziren. Gaztetxo batek ez ditu prestatuta gorputza eta burua eskakizun maila horretarako eta hasieran ez zen batere

erraza izan, baina esperientzia hartatik indartuta atera nintzen.

**Iparretik hegora egin zenuen jauzia, 2011n: Kanarietako Cadagua Galdar taldeak fitxatu zintuen, 20 urte zenituela. Aldaketa handia izan al zen? Zer daukazu akorduan han egin zenituen bi denboraldiez?**

Abentura ederra izan zen. Eskubaloi jokalarik profesional bezala sendotzeko bi urte garrantzitsu izan ziren. Jordi Ribera izan nuen entrenatzaile eta lan handia egin zuen nirekin. Entrenamendu individual asko egiten genituen, eta asko hobetu nuen teknikoki eta taktikoki. Etxetik horren urrun bi urtez bizitza esperientzia aberasgarria izan zen oso.

**“Oso ongi nago eskubaloia lagatzen neuk hartutako erabaki delako”**

**Kanarietatik Bidasoara itzuli zinen berriz eta bigarren etapa horretan lau urte egin zenituen Irunen. Taldeko kapitaina ere izan zinen. Tamalez, azken denboraldian maila jaitsiera bizitza tokatu zitzaizun. Nola bizi izan zenituen une garrantz haiek? Zer lotura duzu Bidasoarekin gaur?**

Bidasoako urte haietan paper garrantzitsua izan nuen taldean; konturatu nintzen gaztetxo izateari utzi niola. Azken urtea ez zen batere gozoa izan, taldeak arazo ekonomikoak izan zituen, eta horrek eragin zuzena izan zuen kantxan. Aurreko hiru urteak, ordea, ederrak izan ziren, bai emaitzari eta baita giroari dagokionean ere.

**2007an, Bidasoarekin maila galdu berritan, Victor Debre Arrateko entrenatzailearen deia jaso zenuen. Arraten egin zenuen lehen etaparen ere bera izan zenuen entrenatzaile eta Asobal Ligan jarraitu ahal izan zenuen Debrek erakutsitako konfiantzari esker. Bizipen eta esperientzia handiagoaz itzuliko zinen Eibarrera, ezta? Helduago, eginago...?**

Bai, noski. Arratetik irten nintzenez 17 urte nituen eta itzuli nintzenez, berriz, 26 urte. Zortzi denboraldi neramatzin Asobal Ligan, baina uste dut ez nintzela Arrateko talde har-

tara ongi egokitu. Ez nuen nire joku mailarik onena eman. Diru arazo handiak izan genituen, eta talde-giroa ere ez zen oso ona izan. 2009an beste une garrantz bat bizitza tokatu zitzaizun. Diru arazoak zirela-eta desagertu egin zen Arrate taldea. Alabaina, horrek bide eman zizun Naturhouse La Rioja taldera iristeko, zure kirol ibilbideko aldi luze eta oparoen behar bada. Goi mailako bi jokalarik [Tvedten y Stojanovic] ordezkatzeko ailegatu zinen, hegalean jokatzeko ustez, baina gol gehiago sartzeko erronka jarri zizun Jota Gonzalez entrenatzaileak. Zer balorazio egiten duzu?

Oso pozik nago Logroñon pasa ditudan 5 urte hauekin. Uste dut Jota entrenatzailearen eskutik asko hobetu dudala jokalarik bezala. 28 urterekin iritsi nintzen eta ordu arte eskubaloi mota bat jokatzeko nuen. Hemen bost urtean beste eskubaloi bat ikasi dut, taktikoa. Defentsan maila handia eman dudala uste dut, batik bat aurreratu bezala. Erasoan ere, eta atearen aurrean, asko hobetu dudala uste dut.

**Zure karreraren gorenean zaudela esan diozu agur eskubaloiarik, txapeldun handiek egiten duten moduan. Nola sentitzen zara? Zer diote ingurukoek?**

Oso ongi sentitzen naiz nik neuk hartutako erabakia delako, neure borondatez, hausnartuta eta planifikatuta, eta horrek kontrol sentazio handia ematen dio bati. Ziurrenik jarraitzeko moduan nengo eta hori da ingurukoek esaten didatena, baina denek errespetatu dute nire erabakia. Uste dut oso irmo ikusi nautela hartutako erabakiarekin. Mezu eta hitz zoragarri asko jasotzen ari naiz egun hauetan.

**15 urte egin dituzu eskubaloien gorenean. Urte horietan, gainera, munduko jokalarik onenak Asobal Ligan egon dira. Guztiak lehiatzeko aukera izan duzu. Egon al da bereziki harritu zaituen jokalaririk, entrenatzailearik, talderik?**

Jokalarik handiekin jokatzeko aukera izan dut, bai aurka zein taldean. Taldean izar handiak izan ditut, eta asko ikasi dut haiengandik. Konturatu naiz jokalarik horiek onenak direla ez bakarrik dituzten gaitasun fisiko, tekniko eta taktikoetatik; baita dauzkaten beste gaitasun pertsonal batzuetatik ere. Bat aukeratzeko Julen Aginagalde aukeratuko nuke; lagun mina dut, eta momentu honetan mundu-

ko pibotik onena da. Asko ikasi dut bera-rengandik.

**Azken bizpahiru denboralditan, baina, sekulako gainbehera izan du Asobalek. Diruaren iturria itxi eta jokalaria eta entrenatzaileen exodoa hasi da. Puntako jokalaria ia denek Europako taldeetara alde egin behar izan dute. Nola ikusten duzu egoera hau? Emango al diote buelta? Profesionalismotik amauter izateko bidean al dago eskubaloia Espainian? Ona ala txarra da hori zuretzat?**

Bai, krisia ere iritsi da gurera eta taldeek ez dituzte lehengo aurrekontuak. Talde asko gorriak pasatzen ari dira beren jokalariei soldata ordaintzeko; egoera ez da batere ona. Baina kirol mailari dagokionean, Asobal Ligan eskubaloi oso ona jokatzeko da. Taldeek ezin dituzte lehengo fitxaketak egin, eta ondorioz, jokalaria gazteek aukera gehiago dituzte. Gazte talentudun asko ikusi ditugu azken urte hauetan, bestela agian ez genituzkeenak ikusiko. Profesional estatusa, ordea, ezin dugu galdu jokariok, hori urte askotako borroka emaitza da, eta egun batetik bestera ezin da galdu. Espero dut klubek asmatzea egoerari buelta ematen.

**Barrutik bizi izan duzu Asobal Ligak izan duen aldaketa sakon hau. Zertan igarri duzu?**

Esandakoan: taldeek aurrekontu murriztagoak dituztela eta ez dituztela lehengo fitxaketak egiten, eta gazte talentudunek lehen baino aukera gehiago dituztela. Baina Asobal Ligan eskubaloi ona jokatzeko da. Kezkatzen da dena da klubek zor handiak dituztela jokalariekin. Ea poliki-poliki egoerari buelta ematen diogun.

**Eliteko kirolarien gorputzek tratua handia jasaten dute, adin batetik aurrera izaten diren aje ugari, adibidez, goizago jasaten dituzte hainbatek goi mailako kirol ibilbidea amaitzean. Zein da zure kasua? Kirola egiten jarraitzeko asmoa duzu?**

Bai, gorputzari astindu handia ematen diogu eta nik ere hala eman diot, eta bai, baditut bai nire ajeak, batik bat artikulazioetan. Be-

**“Sanlo taldea egiten ari den lana izugarria da, txalotzekoa”**

launak eta orkatilek asko sufrizten dute, nik muskularki ere arazoak izan ditut. Baina ez daukat kirola uzteko asmorik, jarduera fisikoa behintzat ez. Uste dut hemendik aurrera osasungarria den jarduera fisikoa egingo dudala, denbora librean, dibertsiorako, lagun eta familiakoekin.

**Kirol ibilbidean izan duzun unerik gozoena? Eta gaziena?**

Une gozo asko izan ditut. Bat aukeratzekoan, joan den maiatzaren 10ean Huescan bizitako aukeratu nuke. Partida irabazita Ligako bigarren postua eta Txapeldunen Ligarako txartela ziurtatu genituen; marka historikoa. Berezia izan zen, are gehiago lesio batetik erreperatu berri nintzelako.

**Bikotekidea ere eskubaloi jokalaria duzu. Nola uztartu duzue bikote harremana eta zuen lana? Biak eskubaloi jokariak izatea mese-degarria, kaltegarria da...**

Izan zen; duela bi urte utzi zion eskubaloi jokalaria izateari. Baina oso ongi konpondu izan gara biok, baita eskubaloian jokatzeko genuenean ere. Etxean ez genuen eskubaloiaz gehiegi hitz egiten, baina ongi ulertu izan gara, ondo genekielako zeintzuk diren jokalaria baten gorabeherak.

**Beti eskaini izan diozu babesela Elgoibarko Sanlo taldeari. Zer iritzi daukazu azken urteetan Elgoibarren eskubaloia inguruan egiten ari diren lanaz? Duela 17 urte Elgoibarren jokatzeko zenuen eskubaloian. Nola gogoratzen dituzu urte haiek eta kluba?**

Sanlo Taldea egiten ari den lana izugarria da, txalotzekoa. Sortu duten mugimendua, olatuak... meritu handia du, eta hemendik nire zorionak eman nahi dizkiet. Lan handia egiten ari dira gaztetxoak kirolera eta eskubaloiara zaletzeko eta horrek balio handia du, uste baino handiagoa. Asko hazi da Sanlo Taldea nik alde egin nuenetik.

**Zer eman dizu eskubaloiak, eta zer kendu?**

Asko eman dit eskubaloiak, asko, baina batez ere kirolari bezala eta pertsona bezala hazteko aukera eta lagun handiak egiteko aukera eman dit. Kendu, ba, ez nuke jakingo esaten zer kendu didan. Eman didanarekin gelditzen naiz, asko eman dit eta.



## CD Elgoibarko infantilen taldeak Gipuzkoako lehen mailako liga txapelketa irabazi du

Euskadiko finalak jokatuko dituzte, Araba eta Bizkaiko txapelkunen kontra

**E**lgoibarko Unbe futbol zelaian jokatu zuten asteburuan CD Elgoibarko infantilek Gipuzkoako txapelketa-ko finala, eta 3-2 irabazi zioten Debaiko Amaiak Bat taldeari. Emaiza horri esker, Gipuzkoako infantilen liga txapelketa irabazi dute elgoibartarrek. Partida zaila izango zela aurreikusten zuten, izan ere, ordura arteko bi partidetan debarrak nagusitu ziren. Oraingoan, baina, Iñigo Perezek entrenatzen dituen mutilek irabazi zuten.

Elgoibartarrak ondo kokatuta egon ziren berdegunean, eta jokoan gehiago zirela erakutsi zuten hasieratik. Lehen zatiko erdialdean sartu zuten lehenengo gola zuri-gorriek, baina atsedenaldira iristerako berdindu zuten markagailua debarrek.



Bigarren zatia hasi eta berehala hartu zuten aurea Elgoibarrek, eta hirugarren gola ere laster egin zuten. Partida amaitzean zegoela sartu zuten Amaiak Bat taldeak bigarren gola, eta horrenbestez, 3-2koa izan zen azken emaitza.

Datozen bi asteetan Euskadiko txapelketako finalak jokatuko dituzte, Arabako eta Bizkaiko txapelkunaren kontra. Zapatu honetan izango dute lehen partida Gasteizen, Bizkaiko txapelkunaren kontra. 10:00etan hasiko da partida, Betoñon.

### Kimetz Bergaretxe Euskal Herriko txapelketarako sailkatu da igeriketan



Gipuzkoako eskolarteko igeriketa txapelketa jokatu zen joan zen asteburuan, eta Elgoibarko Igeriketa Taldeko Kimetz Bergaretxe (Mendaro, 2001) zilarrezko bi dominarekin itzuli zen etxera. Bergaretxek bigarren egin zuen bizkar estiloko 100 metroko eta 200 metroko probetan, 2000-2001 urteetan jaiotakoan sailean. Bizkar estiloko 100 metrokoan lortutako bigarren postu horri esker, gainera, Euskal Herriko txapelketarako sailkatzea lortu du mendarorak. Bihar jokatuko du txapelketa hori, Gasteizen.

### Nesken pala txapelketa antolatu dute

Iturri tabernan nesken pala txapelketa antolatu du. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Interesatuak Iturri tabernan eman beharko dute izena maiatzaren 31rako. Txapelketa hasteko data zehatzik ez badago ere, ekainaren erdialdean hasteko asmoa dute antolatzaileek.

### Herriarteko pilota txapelketatik kanporatu dute Elgoibar

Joan zen asteburuan jokatu zituzten Lagunak pilota eskolakoek Herriarteko txapelketako itzulerako partidak Ikastolako frontoian, eta joaneko kanporaketan bezala, 2-1 galdu zuten elgoibartarrek Ataungo taldeen kontra. Nagusiek 22-18 irabazi zuten, baina jubenilek eta kadeteek galdu egin zuten. Azken emaitza 4-2 izan da Ataunen alde, eta Elgoibar Herriarteko pilota txapelketatik kanpo geratu da.

## Tecnifuelle kadeteen taldeak aurrera egin du Espainiako eskubaloi txapelketan

Espainiako zortzi talde onenen artean daude elgoibartarrak

**E**spainiako kadete emakumezkoen eskubaloi txapelketa jokatu zuten asteburuan Olaizaga kiroldegian, eta etxeko taldea izan zen jaun eta jabe. Tecnifuelle Elgoibar, Errioxako Sporting Oyonesa, Nafarroako Malkaitzen eta Kantabriako BM Pereda taldeek hartu zuten parte, eta ligaxka modura jokatu zen txapelketa. Tecnifuelle Elgoibarrek jokatu zituen hiru partidak irabazi zituen, eta horrenbestez, hurrengo faserako txartela lortu zuen. Espainiako txapelketako sektoreko fasea irabazita, estatuko zortzi talderik onenen artean izango da Tecnifuelle. Gainerako taldeetako emaitzak kontutan hartuta, honako talde hauek lortu dute azken faserako sailkapena: Tecnifuelle Elgoibar, BM Zonzamas, Morro Jable, C.B. Elche, Bm. Base Oviedo, F.H. Roquerol, Balonmano Sanse eta BM Morvedre. Hurrengo fasea Bartzelonan jokatu dute.


### Ikus, Gipuzkoako txapeldun

Joan zen asteburuan Gipuzkoako txapelketako finalak jokatu zituzten infantiletan, eta Sanloko hiru taldek hartu zuten parte. San Roke nesken taldeak galdu egin zuen Zumaiaren kontra, eta Deca mutilen taldeak ere ezin izan zuen Zarauzko taldea gainditu. Baina Ikus nesken taldeak 12-15 emaitzarekin



irabazi zion Ereintzari eta emaitza horri esker, Gipuzkoako txapelketa irabazi dute.

## Bukatu dituzte Mintxetako harmailetako teilatua berritzeko lanak



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, barixakuan bukatu zituzten Mintxetako harmailetako teilatua berritzeko lanak. Polikarbonatozko 99 xafla aldatu dituzte guztira, eta horiei esker argitasun handiagoa nabari da Mintxetako harmailetan. Txingor zaparrada mardul batek kalte handiak eragin zituen iazko maiatzean Mintxetako harmailetako teilatuko plaketan. Udal Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, aseguruetxetik jasotako diruarekin berri dute orain teilatua. Kaltetutako plakak aldatu dituzte, eta polikarbonatozko 99 xafla berri jarri dituzte.

### Goiztrail mendi lasterketa irabazi du Ainhoa Lendinezek

Maiatzaren 17an jokatu zuten Goizuetako lehenengo Goiztrail mendi lasterketa. Korrika egiteko eguraldi bikaina izan zuten kirolariek, nahiz eta mendian lainoa egon. Lasterketan 128 pertsonak parte hartu zuten, eta Ismail Razga santurtziarrak eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrak irabazi zuten. 22 kilometroko ibilbidean, 1.500 metroko desnibel positiboa gainditu behar izan zuten korrikalariek.





# Espainiako Kopatik kanpo geratu da King Kong jubenilen areto futbol taldea

0-10 galdu zuten Levanteren kontra



Euskadiko txapelketa irabazi ondoren, Espainiako Kopako kanporaketa jokatu zuen joan zen zapatuan King-Kong areto futbol taldeak Levanteren kontra, eta 0-10 galdu zuten elgoibartarrek. “Nagusitasun osoz” irabazi zuen Valentziako taldeak, eta elgoibartarrak txapelketatik kanpo geratu dira. Debarbarrena klubetik jakinarazi dutenez, Elgoibarko jubenilek “dena eman zuten kantxan”, baina Levante taldekoak kanporaketa gainditzeko “oso prestatuta” etorri ziren. Partida hasieratik ikusi zuten elgoibartarrek ez zela erraza izango baloia jokatzea, eta Levantekoen areara iristea izugarri kostatzen zitzairen. Levantekoek lehenengo gola egin zuten, eta bata bestearen atzetik iritsi ziren beste gol guztiak. 0-6 emaitzarekin iritsi ziren atsedenaldira, eta bigarren zatian beste lau gol egin zituen kanpoko taldeak. Emaizta “txarra eta mingarria” izan zen arren, King Kong taldeak “denboraldi bikaina” egin duela nabarmendu dute CD Debarbarrenako arduradunek.

## Udako kirol ikastaroak antolatu ditu Patronatuak

Elgoibarko kirol patronatuak prest dauka uda honetarako kirol eskaintza. Batetik, haur eta gazteentzako Kirol Udalekuak antolatu ditu, baina horrez gain, kirol ikastaroen eskaintza berezia ere egin du udarako. Haurrentzako aerobik txiki edo igeriketa ikastaroak prestatu dituzte, eta gazteentzako spinning, zumba edota igeriketa ikastaroak izango dira aukeran. Ekainaren 23tik uztailaren 24ra bitartean eskainiko dituzte saioak. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena.

## Pedro Berazak bigarren egin du, Hernaniko judo txapelketan

Hernaniko judo txapelketa jokatu zuten asteburuan, eta alebinetan, bigarren postua eskuratu zuen Pedro Beraza elgoibartarrak. 38 kilogramora arteko proban hartu zuen parte Egoitz Morak entrenatzen duen gazte honek.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Elgoibar 3 – Martutene 1 (Inf. Txiki)

Elgoibar 3 – Amaiak Bat 2 (Lehenengo inf.)

### ESKUBALOIA

Tecnifuelle Elg. 22 – BM Pereda 21 (Kad. nes.)

Sporting Oyonesa 13 – Malkaitz 39 (Kad. nes.)

Sporting Oyonesa 20 – BM Pereda 33 (Kad. nes.)

Malkaitz 26 – Tecnifuelle Elg. 28 (Kad. nes.)

BM Pereda 24 – Malkaitz 32 (Kad. nes.)

Tecnifuelle Elg. 30 – Sporting Oyonesa 12 (Kad. nes.)

Lauko Elg. 33 – Bera Bera 13 (Sen. nes.)

Gabaz Elg. 28 – Leizaran 28 (Sen. mut.)

Eibar 39 – Beristain Elg. 17 (Jub. mut.)

Ereintza 20 – Astigarraga Elg. 25 (Jub. nes.)

Ereintza 12 – Ikus Elg. 15 (Inf. nes.)

Hondarribi 27 – Pneumax Elg. 43 (Kad. mut.)

Murgil Elg. 14 – Bera Bera 24 (Kad. nes.)

Amenabar 34 – Deca Elg. 24 (Inf. mut.)

Zarazpe 21 – San Roke Elg. 19 (Inf. nes.)

Bankoa Elg. 19 – Aloña 14 (Inf. mut.)

### ESKU PILOTA

#### Herriarteko Txapelketa

Elgoibar 22 – Lagunak 18 (Nag.)

Elgoibar 9 – Ataun 22 (Jub.)

Elgoibar 1 – Ataun 22 (Kad.)

#### Udaberri txapelketa

Azkoitia 17 – Lagunak 22 (Nag.)

Azkoitia 22 – Lagunak 7 (Nag.)

#### Lagunak txapelketa

Zubizarreta 18 – Salegi 12 (Aleb.)

Alonso 18 – Gonzalez 14 (Aleb.)

Maiora 18 – Olabe 10 (Aleb.)

Sanchez 15 – Salegi 18 (Aleb.)

Bergua 18 – Andrey 5 (Benj.)

Azpilikueta 18 – Peru 10 (Benj.)

### ARETO FUTBOLA

King-Kong Elg. 0 – Levante 10 (Jub.)

## AGENDA

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 24

10:00 Cometel Elg. – Usurbil (Inf. nes.)

11:30 Beristain Elg. – Ereintza (Jub. mut.)

18:30 Alcorta Elg. – Ereintza (Sen. mut.)

Domeka, 25

10:00 Tecnifuelle Elg. – Pulpo (Kad. nes.)

11:30 Astigarraga Elg. – Legazpi (Jub. nes.)

## Igeriketa Eguna antolatu dute biharko

6 urtetik 14 urtera arteko umeentzako Igeriketa Eguna antolatu dute biharko. 9:45etik aurrera egingo dituzte igeriketa probak Olaizaga kiroldegiko igerilekuan. Txikienek jolasetan hartuko dute parte, eta nagusiek igeriketa proba desberdinak gainditu beharko dituzte.

## Mari Jose Zubiaurre omendu dute Musika Eskolan eginiko lanagatik

Txistularien alardearen ekitaldian egin zioten omenaldia

**T**xistularien alardea antolatu zuen Inazio Bereziartua musika eskolak joan zen zapaturako, eta ekitaldi horren barruan Mari Jose Zubiaurre omendu zuen Emudafe fundazioak, hainbat eta hainbat urtetan musika eskolan egindako lanagatik. Alfredo Etxeberriak eman zion oroigarria, txistulariek parrokiaren eskaini zuten kontzertuan. Mari Jose Zubiaurrek aurten hartuko du erretiroa.

### 200 bat lagun alardean

Eibar, Ermua, Deba, Mendaro, Azpeitia, Aretxabaleta, Arrasate, Gasteiz eta Elgoibarko txistulariek, Haritz dantza taldeak, Inazio Bereziartua musika eskolako dantzariak, Metal boskoteak eta Marimbak eta lau abesbatzak hartu zu-



Arg.: Aitor Zabala

ten parte txistularien alardean. Guztira 200 lagun baino gehiago batu ziren.

Lehenik kalejira egin zuten txistulariek Elgoibarko kaleetan zehar, eta ondoren, kontzertua eskaini zuten San Bartolome parrokiaren.

## Dantza erakustaldia egingo dute auresku eta soinu zahar txapelketako dantzariak

Hamabost urte bete dira aurten Elgoibarko dantzari gazteak auresku eta soinu zahar txapelketetan parte hartzen hasi zirenetik, eta emaitzak denetariakoak izan badira ere, urtero lortu dute elgoibartarrek finalera iristea.

Aurtengo txapelketa joan zen asteburuan amaitu zen. Errenterian jokatu zuten mutilek auresku txapelketa, eta Elgoibartik Eneko Gonzalez eta Gaizka Urangak hartu zuten parte. Jon Lizarralde irakasleak esandakoaren arabera, ondo aritu ziren bi dantzariak, eta "gustura" geratu ziren eginiko lanarekin.

Soinu zahar txapelketa, aldiz, Legazpin jokatu zen, eta kasu honetan ere bi elgoibartarrek hartu zuten parte: Naroa Lopez eta Nerea Sasiain. Urduri dantzatu zuten, baina "nahiko gustura" agertu dira egindako saioarekin.

Denboraldiari amaiera borobila emateko, dantza erakustaldia antolatu dute



maiatzaren 31rako. Auresku eta soinu zahar txapelketan parte hartzen duten hainbat dantzari hartuko dute parte, eta txapelketan dantzatzen dituzten doinu berberak dantzatuko dituzte. 10etik 18 urtera arteko dantzariak hartuko dute parte. Erakustaldia Kalegoen plazan izango da, 12:30etik aurrera.

### Udako ikastaroak burutzeko diru-laguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak aurkeztu ditu udako ikastaroak, eta Elgoibarko Udalak diru-laguntzak eskainiko ditu ikastaroak egiteko. 42 ikastaro eskainiko dituzte, Iruñan, Baionan eta Eibarren. Ikastaroei buruzko informazioa [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunean aurkitu daiteke. Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak diru-laguntzak ematen dizkie UEUk antolatutako ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei. Euskara Batzordeak matrikula osoa ordaintzeko diru-laguntza ematen die ikasle, langabetu, pentsiodun eta jubilatutako elgoibartarrei. Era berean, lanean dihardutenei matrikularen erdia ordaintzeko diru-laguntza ematen die Batzordeak. Informazio gehiagorako Udaleko Euskara Batzordea jo daiteke (943 744 366).

### Vicente Olmos tronpeta joleak joko du domekan, Udal Musika Bandarekin

Vicente Olmos tronpeta joleak Udal Musika Bandaren kontzertuan hartuko du parte domekan. Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronpeta jole bakarlaria da, eta Txomin Mujikak esandakoaren arabera, prestigio handiko musikaria da.

12:30ean hasiko da kontzertua, eta joan zen astean hil zen Juan Cordero Castaños musikari elgoibartararen alde minutu bateko isilunea egingo dute.



# 285 ikaslek hartu dute parte ahozkotasuna eta bertsogintza egitasmoan

Maiatzaren 26an eta 27an egingo dituzte kurtso amaierako jaialdiak

**A**urtengo ikasturtean 285 ikasle aritu dira ahozkotasuna eta bertsogintza erantzeko egitasmoan: Herri Eskolako 4. eta 5. mailetako ikasleak, Ikastolako 5. eta 6. mailetakoak eta Institutuko DBH 2ko ikasleak, hain zuzen ere. Saioen gidaria Iñaki Gurrutxaga bertsolaria izan da. Udalak emandako diru-laguntzari esker antolatzen dute herriko ikastetxeek egitasmo hau.

## Jaialdia datorren astean

Bertsozale elkarteak abian jarritako proiektu horrek ikasturte osoko iraupena izan du, eta bertan jardun duten ikasleek bertso-jaialdi bat egingo dute, herritarren aurrean, urtean zehar egin duten lana erakusteko.

Kurtso bukaerako jaialdiak maiatzaren 26an eta 27an izango dira 18:00etan Herriko Antzokian. Asteleheneko jaialdian He-



Arg.: Aitor Zabala

rri Eskolako 4. mailako eta Ikastolako 6. mailako ikasleek jardungo dute bertso-tan, eta astearteko saioan Ikastolako eta Herri Eskolako 5. mailetako ikasleek. Saiotan Elgoibarko Bertso Eskolako ikasleak ere izango ditugu bat-batean kantari.

Bertso-jaialdirako sarrera doan da, beraz, Udaleko Euskara Sailak gonbite berezia egin nahi die proiektu honetan parte hartu duten ikasleen gurasoei euren seme-alabek ikasturtean landutakoaren emaitza ikustera joan daitezten.

## Giro onean ospatu zituzten galiziarren jaiak



Azken urteetako ohiturari jarraituz, Aita Agirre plazan ospatu zituzten galiziarren jaiak joan zen asteburuan. Barixakutik domekara bitartean hainbat eta hainbat ekintza antolatu zituzten. Galiziako janari eta produktu tipikoak dastatzeko aukera izan zuten elgoibartarrek, eta horrez gain, kultur ekitaldiak izan ziren nagusi. Haritz dantza taldeak bertako dantzak eskaini zituzten zapatuan, eta Laudio-ko Espalladoiro taldeak gerturatu zizkigun galiziar doinuak. Gaita doinuak ere ez ziren falta izan, eta festa giroa Ritmo Joven taldeak jarri zuen, ordu txikitara arte. Eguraldia lagun, giro onean joan ziren jaiak.

## Atxutxiamaiak udarako eskaintza handitu du

Atxutxiamaiak aisialdi taldeak maiatzarako egin zuen eskaintzak arrakasta handia izan zuela adierazi dute arduradunek, eta hori ikusita, LH3tik LH6ra arteko umeentzako beste eskaintza bat prestatu dute ekainerako eta uztaileko, Ludotekarekin batera.

Ekainaren 26tik 28ra Zuhatzara egingo dute irteera. Gaubelak, uretako ekintzak eta hainbat jolas egingo dituzte, besteak beste. Interesatuak 44 euro ordaindu beharko dituzte (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 40 euro).

Era berean, sukaldaritzako ikastaroa eta lagunarteko bazkariak egingo dituzte uztaileko barixakuetan. Besteak beste, markarroiak, hanburgesak edota enpanadak egiten ikasiko dute. Ludotekan izango dira saioak, doan.

Informazio gehiagorako edo izena emateko [www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com) webgunean sartu daiteke.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **673 199 638**
- Neska, umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Gauzez ere bai. ☎ **680 121 252 / 603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia handia. ☎ **616 457 254**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, sukaldari laguntzaile lanetarako edo garbiketak egiteko. ☎ **697 372 374**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Gauzez ere bai. Esperientziaduna. ☎ **672 966 528**
- Emakumea, edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **632 882 532**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Arratsalde. ☎ **628 738 472**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile posturako. ☎ **606 354 982**
- Emakumea, adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **626 052 165**
- Emakumea, lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia. Interna edo orduka. ☎ **632 126 668**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka nahiz gauzez. ☎ **603 740 755**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **620 620 252**

- Emakumea, edozein lanetarako prest. ☎ **620 258 708**
- Neska, edozein lanetarako prest. ☎ **633 808 931**
- Neska, edozein lanetarako prest. ☎ **633 244 397**
- Neska, edozein lan egiteko prest. Orduka. ☎ **646 464 300**
- Emakumea euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Gauzez ere bai. ☎ **660 511 781 / 943 742 330 (Ake)**
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Tabernetan zein baserrian egingo luke lan. ☎ **686 077 316**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. ☎ **622 201 534**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **622 037 598**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Gauzez edo asteburuetan. ☎ **631 414 397**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. ☎ **631 771 590**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **631 724 749**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **632 662 947**
- Mutila eskaintzen da portalak, garajeak edo ganbarak garbitzeko. ☎ **620 710 139 (Aitor)**

**ESKAITZA**

- Neska gaztea behar da, asteburuetan zerbitzari aritzeko. Elgoibarren bizi eta euskaraz jakitea baloratuko da. Curriculuma **Sua** tabernan laga behar da.

**ETXEBIZITZAK**

- Bi logelako etxea alokatzen dut Maalan. Eguzkitsua, igogailuarekin. ☎ **652 716 724**

- Ganbara-etxebizitza alokatzen dut Pedro Muguruzan. Bi logela, oso argitsua. Bizitzera sartzeko prest. ☎ **652 762 236**
- Logela bakarreko etxea alokatzen dut, Errosario kalean. ☎ **630 374 124 (Naiara)**
- Babes ofizialeko etxebizitza salgai Santa Ana kalean. Logela bakarreko estudioa, terraza, garajea eta trastelekuarekin. ☎ **610 729 761 (Arkaitz)**

**PARTIKULARRAK**

- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emango nituzke udan. DBH mailako ingelesa ere emateko prest. Umeak ere zaindiko nituzke. ☎ **659 024 427**

**OSPAKIZUNAK**

- 1964an jaio eta 50 urte beteko dituzten elgoibartarren bazkaria ekainaren 21ean, Sigma jatetxean. 60 euro sartu behar dira, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 20 0071129002. Informazioa eta argazkiak konpartitzeko: [Elgoibar1964\\_quintos@yahoo.es](mailto:Elgoibar1964_quintos@yahoo.es) / Facebook: [elgoibar1964\\_quintos](https://www.facebook.com/elgoibar1964_quintos). Antolatzaileek argazki zaharrak eta ez hain zaharrak eskatu dituzte.
- 1949an jaiotakoen bazkaria ekainaren 7an, Sigma jatetxean. 12:30ean argazkia parrokiako arkupean, eta gero luntxa Ibai Ondo jatetxean. 55 euro sartu behar dira La Caixan, maiatzaren 30erako: 2100 4168 75 2100281986.

**BESTELAKOAK**

- Liburuak oparitu nahiko nituzke. Etorri ikustera eta eraman nahi dituzunak. ☎ **683 338 479**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Ondoko beste bi portalarekin partekatzen dugu patioa. Igogailua jarri nahi dugu eta arkitectoak esan digu igogailua kanpoko aldetik bakarrik jarri ahal dela, patioaren zati bat hartuta. Beste portaleetakoei baimena eskatu beharko genieke?**

Lehenengo, eraikinaren inguruko zehaztasun guztiak jasotzen dituen Eratze Tituloa aztertu beharko litzateke, ikusteko patio hori hiru portaleen elementu komuna ote den. Hala balitz, guztien onspena beharko litzateke. Portale bakoitzean batzar batera deitu beharko litzateke, eta gai-ordenan igogailua jartzeko proposamena sartu. Oztopo arkitektonikoak sahiesteko jarri nahi den igogailu zerbitzuaren obrekin aurrera egingo da, baldin eta lehenengo batzarrean etxe-jabe guztien gehiengoak onartzen badu. Bigarren bozketa bat egiten den kasuan, etxe-jabe guztien gehiengoaren onspena beharrean bilerara agertzen direnen gehiengoarena beharko da, nahiz eta obra hauekin Eratze Tituloa edo eta komunitate-estatutua aldatu. Gero, beste batzar bat antolatu beharko dute portaleetako presidentee, portale bakoitzeko bozketaren berri ematekotan erositako ondasuna soilik eroslearena dela ebaztea, baina ez da ohikoena.

**GOMENDIOA: Egoera hauek erregularizatzea litzateke onena, horretarako ezkontza-ituna (adostasuna dagoen kasuetan) edo eta senar-emazteen banatze agiria aurkeztuta.**

**ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna** Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Marcos Miguel**, aitita-amama eta osaba-izeben partez.



• Zorionak, **Ibai**, martitzenean 5 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **Leire**, maiatzaren 21ean 7 urte bete zenituelako. Etxeko guztien partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Gari!** Gure Tiranosaurux Rex handiak 6 urte bete ditu! Patxo haundi bat, familia osuaren partez, eta ondo pasau! Grrr...



• Zorionak, **Jare**, igandean 3 urte beteko dituzulako. Ederki pasatuko dugu lagun eta familiakoekin.



• Zorionak, **Elala**, bihar 4 urte egiten dituzulako. Muxu handi bat, familiako guztien, eta bereziki, Manexen partez.



• Zorionak, **Lander**, hilaren 21ean 11 urte bete zenituelako. Zorionak, eta muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, iritsi da eguna! Igandean 8 urte beteko dituzu. Muxu asko familiako-en, eta bereziki, Iratiren partez.



• Zorionak, **Pakita**, gaur 86 urte egin dituzulako. Ondo pasatzen! Lagunen partez.



• Zorionak, **Ane**, maiatzaren 20an 7 urte bete zenituelako. Muxuak, familiako guztien partez.



• Zorionak, **aitabxo eta Unax!** Etxekoan, eta batez ere, Oinatzen partez.



• Zorionak, **Xabat eta Maialen**, 3 urte bete dituzulako. Familia osoaren, eta bereziki Maria eta Eleneren partez.

## OSPAKIZUNAK



1974ko bazkaria antolatzen jardun genuenok espero dugu zuek ere ondo pasatu izana. Ea datorren urtean berriro elkartzen garen!

## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**4'50€**

Argazki bikoitza:

**7€**

Hirukoitza:

**9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**3'50€**

Argazki bikoitza:

**6€**

Hirukoitza:

**8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**12€**

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENEKO bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

e-postara bidali.

## 23 barixakua

### *Gure Esku Dago*

18:30 Informazio mahaia

Mendaroko Gure Esku Dago taldeak metroak jarriko ditu salgai. Herriko Enparantzan.

### *Musika*

22:00 Abesbatzen

kontzertua

Markinako eta Mendaroko abesbatzek kontzertua eskainiko dute, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 24 zapatua

### *Informazioa*

11:00 IMHko eskaintza

Heziketa Zikloi eta

Txandakako Ingeniaritzari buruzko informazio saioa eskainiko dute, IMHn.

## 25 domeka

### *Musika*

12:30 Udal Musika

Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian, hil berri den Juan Cordero Castañosen omenez.

1. *Fidelidad* (Jose Velez)

2. *Glasnot* (D. Stratford)

3. *Napoli* (H. Bellstedt).

Vicente Olmos izango da tronpeta bakarlaria obra honetan, Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronpeta bakarlaria.

4. *America* (F. Corto)

5. *The Saint and the city*

(Jacob de Haan)

## 26 astelehena

### *Artea*

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, Santiagoko bidea eta Europaren batasunaz hitzgingo dute Carmen Agirrerekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### *Bertsogintza*

18:00 Kurtso amaierako

jaialdia

Bertsogintza egitasmoan parte hartzen diharduten umek jaialdia eskainiko dute. Herriko Antzokian.

### *Musika*

19:30 Kontzertua

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen kurtso amaierako jaialdia. Musika Eskolako auditorioan.

## 27 martitzena

### *Literatura*

18:00 Literatura tailerra

Haizeak antolatuta, *El jinete polaco* liburua aztertuko dute Consuelo Carrererekin. Udal Liburutegian.

## 29 eguena

### *Literatura*

22:00 Oliver magoa

Oliver magoak eskainiko du ikuskizuna, Tantaka tabernan.



**CORDON  
VILARCHAO**

San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 748 678

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estadia  
Zokak ezartzea  
Lantadura: eguz, aluminio, PVC  
Pintura orokorra

enpres  
**VALMAY**

# Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset  
Digitalean

Ekiantza gorbidapenak  
Hileta orgeriak  
Glasa tuartelak  
Kartzeak - etiketak  
e.a.

Fotokopiak

Koloretan  
Txuri-beltzean

Trenbide Kalea, 13 - behea  
Tel.: 943 74 01 87  
e-posta: arrillagask@euskalnet.net

**M<sup>a</sup> JOSE RUIZ DE PORRES** Doktorea  
**GINEKOLOGOA**

**Urkizu, 13**      943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA

Eibarko  
Centro Médico  
Osasundegia



cmeibar@hotmail.com      www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA  
eskaintzeaz gain, profesionaltasunari  
eta pazientearekiko tratu atseginari  
custen jarraituko diogu.

## LUDOTEKAKO ASTE NAGUSIA

### 23, barixakua

17:00 Txupinazoa

Buruhandiak, zezenzikletak eta dantzaldia.

### 26, astelehena

17:00 Artista Eguna

Eskulanak egingo dituzte.

### 27, martitzena

17:00 Gazteen Eguna

### 29, eguena

17:00 Sukaldari Eguna

Super Chef.

### 30, barixakua

16:30 Kirolari Eguna

Herri Kirolak eta futbolin txapelketa.

## BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 GUARDIAK

<b>09:00 - 22:00</b> 23 Ibañez 24 Garitaonandia 25 Garitaonandia 26 Etxeberria 27 Fernandez 28 Yudego 29 Zabaleta 30 Barrenetxea	<b>22:00 - 24:00</b> Astelehenetik igandera  Yudego	<b>24:00 - 09:00</b> Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)
--	--	--

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



Mundakako udalekuetarako izena emateko epea igande honetan amaitzen da.



Gaur, maiatzak 23, 17:00etan Ludotekako Aste Nagusia hasiko dugu txupinazoarekin **MAALAKO KARPAN.**

ZINEA

«Guillaume y los chicos ja la mesa!»

23, barixakua: 22:15 - 24, zapatua: 19:00/22:15\* (VOS)

25, domeka: 19:00 - 26, astelehena: 21:30



ERABAKITZEKO  
ESKUBIDEARI

# BAI

**EMAN BOTOA** **ehbildu**  
herrikerabaki



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurria egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabillioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixillon 2-2. pabillioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 531 847  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



# Gremioen GIDA